

Azaroaren 5ean, arrastiko **19:30retan Garbe-Mikele** auzoko batzarrari hasiera eman zaio, gaztetxean. (14 pertsona, 10 auzotar- 4 zinegotzi)

Lehenengo eta behin orain arteko eskarien jarraipena egin da.

Gaien jarraipenak, orain arte eskatutakoak eta pendiente gelditu direnak:

- Mikele ermitako teilatua konpontzeko materiala
- Kooperatiba ondoko kableatua kentzea
- Mikele auzoko saneamendua
- Arrain hondakinek eragindako usainari irtenbidea emateko beheko aldera eroatea aztertzea.
- Mikele 17an farola eta ispilua ipintzea
- Aparkalekuetako marrak marraztea
- Pisu berrien inguruan gaizki ez aparkatzeko neurriak hartu
- Boulderreko erabilera eta egoera hobetzeko neurriak hartu: zigorra kontenplazten duen ordenantza bat atera da.

Eskaerak:

- Eroskikoak kontenedorak bete egiten dituzte eta ez dago auzotarrentzako lekurik, kontenedore kanpoan uzten dituzte zaborrak. Usteldutako zaborrak behera eroan beharrean goian botatzen dituzte.
- Jendea kontenedore barruetatik ibiltzen dira jan... bila
- Aparkalekuetarako sarrera-irteerak zehaztu
- Eroskiko kamioien karga eta deskargak zehaztu.
- Piboteak jarri diren kalean argiak jarri, bisibildadea hobetzeko.
- Hostalaren inguruan argiak ipini, ilunetan bisibildade gutxi dago.
- Hipika inguruan espaloia egitea
- Espaloi bat Garbe-Arantzazu
- 105ean dauden badenak Garben ere ipini
- 105ean bide kontran aparkatuta dauden kotxeek bisibildadea kentzen dute. Berdina gertatzen da kultur-etxe kontran aparkatuta dauden kotxeekin. Auzoan kooperatiban aparkatuta dauden kotxeek ere oztopo egiten dute sarrera-irteerarako (Orokorrean auzoko sarrera-irteera guztietan edo gehienetan dago arazoa).
- Rugby zelai berria dagoen alboko landatan ere zerbait egin bizitasun apur bat emateko.
- Rugby zelai inguruan iturriren bat
- Parkea eta 105aren artean loturaren bat egon daiten, parkeko menditxoaren tramo bat zabaldu.
- LH eraikuntzako atzeko partean arrisku handia dago kotxeak direla eta